

ONDAKIÑAK

TORIBIO ETXEBARRIA

Caracas, 1968 - 1 - 3.

AURKEZPEN A

Toribio Etxebarria berak bialdu eustan Caracas-tik, 1968ko urtarrilaren 3an, *Ibilitarixanak* deritxon liburua argitaratu ondoren, *Ondakiñak*. Izenburu onegaz batzen zituan argitaratutako *Ibilitarixanak* liburutik kanpo gelditu ziranak. Geienak papel artean galdurik eta gutxi batzuk gero idatziak.

Lanok galdurik gelditu ez zeitean, *Egan* aldizkarian argitaratzea merezi dau. T. Etxebarria zanak, bizi zanian bere lanak argitaratu zituan aldizkarietako bat dogunez *Egan*.

Eibarko kalerik inportantienetako batek artu dau Toribio Etxebarria izena. Ondo merezia eukan gure gizon onek. Emen ez naiz asiko Toribio zanaren berri emoten. Ori bere garaian egin neban zenbait aldizkaritan eta zerbait jakin gura dabenantzat naikua izango da gure inguruko bitan azaldu nebanaren barri emotia: *Boletín de la R. S. V. Amigos del País* (XXIV, 1968, 455-457 orr.) eta *Euskera* (XIII, 1968, 283-284 orr.).

Ala be, ondo izango da eibartar jator onek idatzi zituan liburuen barri emotia, baten argitaratzea eta beste baten zabaltzea egilia il ondorean egin zanez.

Ara emen bere bibliografia :

GAZTELERAZ :

- *Metafísica a Urcola*. México, 1966.
- *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo*. México, 1966.
- *El Hijo del Hombre* (Vida pública de Jesús de Nazaret, según los Evangelios, con algunas glosas). México, 1966.
- *Tres ensayos. Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración*. México, 1967.
- *Viaje por el país de los recuerdos*. México, 1968.

EIBARKO EUSKERARI BURUZ :

- *Flexiones verbales de Eibar*. Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian. Bilbo, 1963-64.
- *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. *Euskera*. 1965-66.

EIBARKO EUSKERAN :

- *Ibiltarixanak*. Zarautz, 1967.
- *Ondakiñak*. Orain *Egan*-en argitaratzen dogun au.

Egiliai berak *Ondakiñak* izentzat ipini zetsan onetaz be ez daukat asko esan biarrik. *Ibiltarixanak* zeritxon liburu mardularen jarraipena edo bere zatia danez, egilia ta bere euskarazko lanaren barri jakin nai dabenak irakurri deilla *Ibiltarixanak* liburuari sarreran egin neutsan “Aurretiko agirixa”.

Ondakiñak dalako onetan, leenguaeren proporziñoz, ipoñak bertsuak baño leku geiago betetzen dabe. Ipoñok, geienok itzulpenak dira, aintziñako klasikuegandik euskeratuak, azkena edo izan ezik. Kanterbury-koetatik asi eta Frai Anselmo de Turmeda-renetara arte, batzuk andik eta beste batzuk emendik artuta, bada or ipoin politik. Nafarruako Margaritaren *Heptameron*-dik artua be bai bat.

Leen, *Ibilarixanak* liburuaren azkenean *Testamentu Zarreko* pasarte batzuen ondorian *Heptameron*-zati batzuk agertu zituan, ara emen euskeratuok zeintzuk ziran :

Leengo aldiaren V eta VIII. nobelak deitzen diranak (oin emen parte orren VI. nobela dakar), irugarrengo XXIV nobela, laugarrengo XXXIV, XXXV, XXXVIII, eta XXXIX, bosgarren-gotik XLIV eta XLV, eta zazpigarrenetik LXVIII, LXIX eta LXX.

Emengo ipoiñ batzuri itzultzaileak egiten deutesen ohar edo notetatik konturatuko gara, bera ez zala ausartu ipoiñ gordiñenak edo lizunenak euskerara itzultzen, argitaratzeko gogortxoak eritxi jakozelako. Denporarekin gauzak zelan eta zenbat aldatzen diran. Bere eritxizko gordinkeriak, gaur egun ez ete dira epelkekeriak?

Azken azkenean doiazen bost bertso sailak neuk batuak dira. Egiliai lenago neri edo beste adiskideren bati bialdutakoen artian zeren eta "Ondakiñak" onek be eta ez eban merezi baztarrian lagatzerik.

Egilia bera, Toribio Etxebarria Ibarbia, Eibarren jaio zan 1887ko apirillaren 27an eta Caracas-en il 1968ko apirillaren 18an. Gaztetxotatik irakurle aundia, bizitzako esperientzia aberatsak eza-gutua eta lanetik erretirua artzean idazteari emon zetsan. Aipatu ditugun liburuak dira ekintza orren frutu eta *Ondakiñak* datoz orain lan ori burutzer. Olako lanentzat iñoiz ezta berandu.

Baña, lana burutzean ez legoke gaizki lenago *Ibilarixanak* deritxonari zentsurak kendutakoak be geigarriz lan onen amaieran sartzea, lana guztiz burutzearen osagarri.

J. SAN MARTIN